

*in*fraganti

MAITE PERURENA ZUBITUR

Harriak eta hariak, biak behar ditu harri-jasotzaileak. Iñaki Perurenaren alaba da Maite eta aitaren plazako jarduna miresmenez segitu izan du beti. Maite Zubiturren alaba ere bada, eta bera ama izan denean konturatu da hariak zein diren beharrezko. Plazatik eta fokuetatik kanpoko lanaren balioa bistaratu dio amatasunak. Aita plazan aritu ahal izateko amak etxean egin duen lana. Aitaren harriak eta amaren hariak.



Maite Perurena Zubitur Harri-hari Toki izeneko denda estudioaren kanpoaldean, Leitzako plazan. Jon URBE | FOKU

Duela bi urte-tik txalekogilea da Maite Perurena Zubitur. Harri-jasotzaileek beren kirol jardunerako behar dituzten txalekoak josten ditu, neurrira eta norbere beharretara egokitutakoak. Lehenago banketxe batean lan egiten zuen. «Banketxea utzita, nire buruari galdetu nion: nik zer egin nahi dut? Lan desberdinak probatzen hasi nintzen. Aitari baserrian laguntzen, Peru-Harrin bisitak egiten.... Eta bitarte horretan haurdun geratu nintzen eta gure alaba Maitena jaio zen. Eta hau kontaktzen ari naiz neure proiektuaren sorreran garrantzi handia izan zuelako. Ama izateak gauzak beste modu batera ikusarazi dizkit. Ama izan naizenean ikusi ditut harria jasotzeko behar diren hariak. Hori oso modu metaforikoan esaten dut. Nik aitarekin lotura oso estua izan dut beti eta asko miresten dut. Gure aitak egin dituen lanak izugarritzko harrotasunetik bizi izan ditut. Eta ama beti hor. Normala ikusten nuen ama beti hor egotea. Ama izan naizenean konturatu naiz amaren lanaren garrantziaz. Nola egiten zuen amak? Aita erabat kanpoan eta hiru seme-alabarekin... Txalekogile bihurtze honetan izugarritzko pisua izan du amatasunak, amaren lana bistaratze horrek».

Iñaki Perurena harriak jasotzen hasi zenean, emakume batek josten zizkion txalekoak: Maria Angeles Zubiaurrek. «Hargin baten emaztea zen txalekogilea. Mutrikukoa zen berez, baina Deban bizi zen. Bere senarra Pedro Langa hargin famatua zen eta jasotzeko harri gehienak berak egiten zituen. Batek harriak egin eta, besteak, txalekoak josi harriak jasotzeko. Orain konturatu naiz askotan eman izan dela konbinazio hori. Nire aitona Lontxo eta amona Petrita, amaren aldekoak, harriak eta hariak ziren. Aitona hargina zen eta, amona, jostuna. Emakume asko jostunak ziren, hori zen eskura zuten ogibidea. Aitari, beraz, hasierako txalekoak Maria Angeles Zubiaurrek egiten zizkion eta gerora, amak konpondu. Eta Inaxiori (Perurena) txalekoak amak egiten zizkion».

Maite Perurenarentzat harri-jasotzea bizimodu bat da. «Beti gustatu zait harri-jasotzea. Aita plazan ikusteak emozionatu egin nau beti. Baina ohartu naiz hariak behar direla harriak jasotzeko. Eta hor egin dut *klak*. Konturatu naiz txalekoa sekulako sinboloa dela nire etxean, lanaren eta familiaren sinboloa. Hortik sartu naiz bide honetan».

301K MARKA

2020ko apiril inguruan sortu zuen 301K marka. «301 kilogramo. Hortik dator markaren



izena. Harri-jasotzeari dago-kionez, 300 kilo jasotzea ezinezkoa ikusten zen 1987. urtea aurretik. Ordura arte Endañetak jasoak zituen 250 kilo. Gure aitak 1977an plazaratu zuen harri jasotzeko teknika berri bat, iraultzailea izan zena. Teknika horri esker, 250 kilotik 300 kilo jaso ote zitezkeen pentsatzera pasatu ziren nahiko azkar. Aurrenekoa gure aita izan zen 1987an. Iraultza bat izan zen. Euskadiko Sei Orduetan, Donostian, egiten ziren errekor saiakerak eta bertan goratu zituen aitak 300 kilo. Aurrekaririk ez zegoenez, jendeak esaten zuen: 'Eta orain, zer?'. Urte berean, martxoan, Parisen egin zen euskal jaialdi bateko antolatzaileak aitari deitu zion galdetuz ia orain zer egin zezaketen. Eta 300 kiloko marka gainditzea proposatu zien aitak. Horregatik da garrantzitsua 301K marka. Ordutik aurrera aitak kiloka

gainditu zituen muga guztiak, 320 kilora arte. Ondoren Mixel Saralegi leitzarrak jarri zuen marka 329 kilotan».

Bazuen markaren izena eta bazuen abiapuntua buruan: «Nik harri-jasotzaile txalekoa jantzi nahi dut kalerako. Hori zen nire ametsa».

Aurreneko pausoa, josten ikastea. «Ez nekien josten. Amak ez zidan erakutsi eta berak ere ez zuen ikasi amak erakutsita. Gure amona Petrita jostuna eta erakustuna zen, etxean jendea hartzen zuen josten erakusteko. Baina amak ez zuen amonarekin ikasi, ezta nik amarekin ere».

Donostiako Asun Dominguez akademiarekin jarri zen harremanetan. «Neure ideia azaldu nion Asuni: nik harri-jasotzaile txalekoa jantzi nahi dut kalerako. Asunek bideratu ninduen eta garbi esan zidan: 'Oso ondo dago zure proiektua, ondo dago zuk harri-jaso-

kin. Bertan josten ditu Maite Perurenak bere txalekoak eta kalerako arropa ere saltzen du, 301K markakoa. Leitzan harre-ra ona izan du markak, bere egin dute herritarrek Perurenaren proposamena.

IKERKETA ETA GARAPENA

Baina, nolakoak dira 301K txalekoak? «Master bat eta ikaske-ta sakon bat egin behar izan dut, eta oso azkar gainera. Gaur egungo 301K txalekoetan ikerketa eta garapen handia dago. Orain ohartzen naiz horrekin. Adibidez, bada kirolari bat hiru 301K txaleko dituen. Nik esaten diot, lehendabizikoa 1.0 zen; bigarrena 2.0 eta, hirugarrena, 3.0. Ikaragarri eraldatu da. Hiru urtean sekulako bidea egin dut. Hasi nintzenean ez nekien oso ongi zein material behar nuen. Parisen izan nintzen oihalen azoka batean eta artean ez nekien zenbat oihal klase zegoen; kotoia, poliester... ez nekien deus oihalei buruz. Oso azkar ikasi nuen, baina horretarako proba-akats aritu naiz. Txalekoak josi, harri-jasotzaileei eman probatzeko eta haien iritzia jaso. Horixe izan da nire prozesua. Etxean ikusitakoan oinarrituta eta inguruan nituen harri-jasotzaileei galderak eginda hasi nintzen. Nire senarra Aitor harri-jasotzailea izan da eta izugarri lagundu dit».

Harri-jasotzailearen txalekoak hiru ezaugarri nagusi dauzka. Batetik, betegarritz eginko jantziak dira, babesa eman behar dutelako. Bigarrenik, lepoak moko forman behar du, mugikortasuna emateko. «Mokoaren luzera desberdina da harri baterako edo besterako. Bola denean, itxixeagoa nahikoa da, baina kubikoa denean, zabalagoa

tzaile jantzi nahi izatea, baina lehendabizi harriak jasotzeko txalekoak egin behar dituzu'. Erabat buelta eman zion nik hasieran neukan ideari».

2020ko martxoaren hasieran Asun Dominguezen akademian josteko ikastaro bat egin zuen. «Hiru orduko ikastaroa egin eta martxoaren 13an etxean itxi gintuzten. Itxialdian gero eta buelta gehiago ematen nizkion buuari, gora eta behera proiektuarekin. Eta gero eta garbiago ikusten nuen neronek josi behar nituela txalekoak. Baina josteko makinarik ez neukan. Amak bere makina Tolosan zeukan konpontzen eta ezin bila joan konfinatuta geundelako. Auzoko Tereri josteko makina eskatu eta hasi nintzen txalekoak egiten itxialdian».

Hiru urteren buruan, Leitzako plazan bertan topa daitezke 301K txalekoak, Harri-hari To-

behar du, mugikortasun handiagoa izan behar duelako». Eta hirugarren ezaugarria, albokoak estutu eta zabaltzeko modukoak behar dituela, malgutasuna eta mugikortasuna emateko. «Plazan ondo ikusten da. Harri kubikoa jasotzeko kirolariek izugarri laxatzen dute txalekoa eta zilindrikorako pixka bat estutu. Koadrorako, berriz, oso estu jartzen dute, batere ez mugitzeko. Aukera hori ematen du alboak sokarekin irekiak izateak».

Perurenaren hitzetan, «txalekoaren funtzio bakarra ez da babestea. Harria jasotzeko erreminta bezala irudikatu behar da, indar gutxiagorekin pisu gehiago jaso ahal izateko. Erreminta eraginkorra da txa-

lekoa. Indarrak ez du ematen, baina jasoaldiaren eraginkortasunean laguntzen du. Kirol praktikaren parte garrantzitsua da».

Harriaren arabera, aldatu egiten da txalekoaren babesa eta berez egokiena litzateke harri mota bakoitzerako txaleko bat izatea. «Ez da gauza bera hasi berria den harri-jasotzaile bat, ez dakiena oraindik harriarekiko sentsazio zehatza zein duen, edo esperientzia-dun harri-jasotzailea izatea. Ez da gauza bera ehun kilo edo hirurehun jasotzea. Ez da gauza bera harri bola bat, izkinarik ez duena, edo harri-kubiko bat, izkinaz betea, jasotzea. Eta gerta daiteke harri-jasotzaile batek txaleko bat baino gehia-

«Txalekoaren funtzio bakarra ez da babestea. Harria jasotzeko erreminta bat da, indar gutxiagorekin pisu gehiago jaso ahal izateko. Jasoaldiaren eraginkortasunean laguntzen du»

«Nik ez dut deus asmatu, funtzionatzen zuen txaleko eredu bat hartu eta eguneratu egin dut, baliabide garaikideekin gaurkotu, ez dut besterik egin»

go behar izatea. Orain gertatzen ari da kirolari berrien etorrria dagoela. Eta kirolari berriak ez daki zenbat iraungo duen bere zaletasunak. Beraz, hibrido moduko batzuk egiten ari naiz: ez dira onak zehazki harri baterako edo besterako, funtzionaltasun desberdinak konbinatzen ditu. Txaleko bakarrarekin modalitate desberdinetan moldatzeko modua izateko», azaldu du Maite Perurenak.

«Izan ere, harri-jasotzaile batek badaki harri bolarako txaleko bat behar duela eta harri koadro, zilindro eta kubikorako beste bat. Eta zehatzagoak izanda, ahal bada, kubikorako beste bat hobe, mugikortasun handia behar duelako. Baina denek ezin dituzte hiru txaleko kolpetik egin».

Badira txaleko kremailera-dunak ere, Euskal Pentatloirako pentsatuak. «Proba horretan azkartasuna behar da, txalekoa azkar jantzi eta erantzi behar da. Baina nik ez dut deus asmatu, baziren txalekoaren atzeko partean kremailera zutenak, amak edo josia. Eta txalekoarekin berdina: nik ez dut deus asmatu, funtzionatzen zuen eredu bat hartu eta eguneratu egin dut, baliabide garaikideekin gaurkotu, ez dut besterik egin».

BERRITASUNA MATERIALETAN

Ziur aski materialetan ekarri du berritasun handiena 301K markak. «Harria oso urratzailea da. Aurrekoan, harrobi batean lan egiten duen langile batek aipatzen zidan berak titaniozko palak erabiltzen dituela eta horiek ere gastatu egiten direla harriarekin. Pentsa. Tradizionalki kotoiak erabili izan dira. Bergaran genuen kotoi fabrika oso indartsua; ‘Azul de Bergara’ koloreari horregatik esaten zaio horrela. Gaur egun itxia dago. Kotoia oso iraunkorra da eta horregatik erabili izan dira lanerako kotoizko jantziak. Harri-jasotzeko ere berdina, hasieran zu-riak eta ondoren, urdinak, Bergarako fabrika horregatik. Laneko oihalak erabili izan dira harria jasotzeko. Kotoia oso ona da, baina gastatu egiten da, tarratatu, eta askotan harri-jasotzaileek larruzko par-



Txalekogile, bere lantokian, txaleko bat josten. Harri-jasotzaileekin harreman zuzena du eta neurritik egiten ditu txalekoak. Jon URBE | FOKU

txeak erabili dituzte, zuloak tapatu eta parte hori indartzeko. Larruzko partxeak josteko erreminta berezia behar da, etxeko josteko makinekin ezin da, zapataginarengana eraman behar da. Eta bestetik, larrua garbituz gero, kartoi-itxura hartzen du eta ez ditu akaso portaera onenak harriarekin. Kirol jarduera egiteko arropa garbitu egin behar da. Harri-jasotzean erabiltzen ziren materialak eskura zeudenak ziren, seguruen ez ziren onenak. Baina kirolari gutxi izan direnez, inork ez du interesa izan ikertzeko, probatzeko, garatzeko. Finean, harri-jasotzaileak ez dira asko eta ez dago merkatu zabala. Ni saiatu naiz material teknikoak sartzen. Horiek testatu dituzten kirolariak gustura daude. Arinak dira, garbigarriak, iraunkorrak.... Hobeak egongo dira? Seguru baietz, baina ezin da mundu mailako proba bat egin. Neure baliabideekin horraino iritsi naiz».

HARRI-JASOTZEAREN ARNAS BERRIA

Leitzako plazako izkina batean dagoen Harri-hari Toki egungo harri jasotzaileen topaleku garrantzitsu bihurtu da. Maite Perurena lanez lepo dabil txalekoak egin eta egin. Lehen pausoa kirolariei galdeketa zehatza egitea izaten da. Zer harri mota jasoko dituzten, gorputzeko atalen bat ote duten minduta, sorbalden barruko partean material irristakorra nahi duten edo ez, kremailerarik behar ote duten... Galdeketa zehatza, txalekoak erabat neurritara egiteko.

Eta Leitzako bere denda-estudioan ikusten duenak eduki erakusten du harri-jasotzeak bizi duen garaia: jende gaztea eta emakumeak, gero eta gehiago. «Harri jasotzea-



Maite Perurena, josi berri dituen bi txaleko erakusten. Orintxe lan dezenterekin dabil, kirolari askoren eskariak ditu eskuartean.

Jon URBE | FOKU

ren loraldia gertatzen ari da. Horretan garrantzi handia duen faktorea izan da talka handia izan dela estereotiputa dagoen kirol honen irudi berrituarekin. Talka horrek eragina izan du, atentzioa eman dio jendeari. Harri jasotzea ez zen bada gizon handi, zakar, arlote batzuen kirola?

Harri-jasotzearen loraldi bat gertatzen ari da, jende gaztea eta emakumeak gerturatu dira. «Talka bat gertatu da. Harri jasotzea ez zen bada gizon handi, zakar, arlote batzuen kirola?»

Maite Perurena Zubiturrek hasieratik amets bat izan du buruan: kalerako txalekoak egitea. «Gure tradizioko jantziak berreskuratu eta kalera ateratzea». Oraindik buruan dauka

Emakume garaikideak agertu dira plazan, gaur egungo estetikarekin. Eta erakutsi dute kirol hau besteek bezain ongi egin dezaketela. Talka horrek atentzioa eman du».

Izan ere, harri-jasotzaileak, harriaren zama ez ezik, bere inguruan sortu den estereotipoaren zama ere sumatu baitu betidanik. «Gure aita bizitza osoan aritu da estereotipo horren kontra borrokan. Horrela aritu da, eta oso ondo egin du. Baina, hala ere, bazen beste pauso bat emateko beharra. Gero, gainera, kontziente izan behar dugu modekin funtzionatzen dugula. Nik ez dut uste honek hainbesteko denboran eutsiko dionik. Nahiago nuke. Orain, asko eragin du crossfitaren igoerak harri-jasotzaile

berrien sorreran. Horrek ere izango du beherakada, harri-garri ari baita gora. Gure aitak duin egin du harri-jasotzea eta etorri diren berriek gauza bera egin dute, baliabide garaikideekin».

Pozik dago Maite Perurena harriekin eta hariekin, baina ez du bere hasierako bultzada ahaztu. Bere ametsak hasierakoa izaten segitzen du: kalera-ko txalekoak egitea, «gure tradizioko jantziak berreskuratu eta kalera ateratzea». Une honetan ez dauka ez astirik ez baliabiderik proiektu horretara jartzeko, baina beti du buruan hasierako ametsa. «Ia kirol eskariak arnas pixka bat ematen didaten». •

Amagoia MUJKA TELLERIA